

Proba-idatzi honek 3 galdera ditu, eta 90 minutuan, gehienez, egin behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bakarra hautatu eta garatu. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkintzeko.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

En las dos primeras preguntas, se proponen dos opciones de las que solo debes desarrollar una. En la última, hay un único texto para comentar.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2025eko EZOHIOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

1. GALDERA (proba idatziaren % 40 balio du): bi irudi proposatzen dira. Bat aukeratu ezazu, eta egizu irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: aztertu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (pinturaren kasuan, marrazkia, kolorea, argia, konposizioa, etab.; eraikuntzaren kasuan, elementu sostengatzaileak, elementu sostengatuak, oinplanoa, sortutako bolumena, dekorazio elementuak...).
2. Egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean nola erabili dituen interpretatu.
3. Artelanaren gaia identifikatu, eta saiatu haren esanahian sakontzen.
4. Adierazi zein diren obraren funtzioak, eta arrazoitu.
5. Erlazionatu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, eta argudiatu mugimendu horren zein estilo-ezaugarri ikusten diren bertan landuak eta, zure ustez, zein kronologiatan gauzatu den artelana.



FRIEDRICH: *Monjea itsasertzean*,
1808-1810



BRUNELLESCHI: *Santa Maria del Fiore Katedraleko kupula*, 1420-1436, Florentzia


2. GALDERA (proba idatziaren % 40 balio du): Hautatu bi aukeretako bat (A aukera edo B aukera).

A aukera

Artelanak konparatzea eskatzen da. Bi irudi hauei erreparatuta, konpara itzazu hainbat alderdi kontuan hartuta: gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioak, testuingurua, sorkuntza-ikuspegia, espresio-moduak... Aztertu antzekotasunak eta ezberdintasunak.



Marko Aurelio zaldi gainean, II. mendea, Erroma



DONATELLO: Condottiero Gattamelata, 1447-1453, Padua

B aukera

Aztertu ezazu zer eboluzio izan zuen mugimenduaren errepresentazioak antzinako greziar eskulturan, aro arkaikotik helenistikora.

3. GALDERA (proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Testua irakurri, ideiarik inportanteenak laburbildu, eta arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin erlazionatu, zure erantzunaren aldeko argudioak eskainiz. Testuko ideiei buruz duzun iritzia pertsonala koherenteki azaltzea elementu gehigarri bezala baloratuko da.

Ezin izango nuke emakume baten erretratua egin, dituen xarma guztiekin. Ez dut horretarako gaitasunik. Inork ez dauka. Beraz, edertasun-klase berri bat sortu behar dut, bolumen, lerro, masa, pisu terminoetan agertzen zaidan edertasuna, eta edertasun horri esker interpretatzen dut nire inpresio subjektiboa. Natura aitzakia hutsa da dekorazio-konposizio baterako, eta horri gehitzen zaio sentimendua. Sentimenduak emozioa iradokitzen du, eta emozio hori eramaten dut artera. Absolutua ezagutarazi nahi dut, eta ez bakarrik fikziozko emakumea.

Georges BRAQUE. Deklarazioa, 1908 edo 1909.